



urtego Martxoak 8a ehungarrena da emakumeon eskubideen defentsarako egun hau ezarri zenetik. Martxoak 8 honek gainera bat egiten du Emakumeon Mundu Martxaren hasierarekin. 2000.urtean egon ginen, 2005ean parte hartu genuen eta aurten ere, bat egiten dugu Mundu Martxaren aldarrikapenekin.

Gure salaketa hau da: sistema hetero patriarkal honen krisiak, emakumeon bizi baldintza, osasun, autonomia eta duintasuna gogor kolpatzen dituela.

Baina kapitalismoaren gaur egungo fase honetan prekaritateak ez du soilik lan arloan eragiten, nahiz eta egia izan emakumeok lan postu prekarioenak, ezegonkorrenak eta gutxien ordainduak betetzen ditugula; fase honetan prekaritateak gure existentzia osoa kolpatzen du. Prekaritateak gure bizitzan, oinarritzko ondasunen eskuraketan, etxebizitzan, osasunean, zainketan, erremuneratu gabeko lanetan, prestazio publikoen eskuraketan, denboraren bizipenean, gorputzaren gozamenen, herritartasun izaeran, ... eragin zuzena du.

Lanaren kontzeptua lan merkatuan egiten den jarduerara mugatzen da. Hau da, ondorio moduan bazterketa eragiten duen lanera: merkatutik kanpo egiten den lan oro ez da lan bezala kontutan hartzen eta ez zaio duen balore sozioekonomikoa aitortzen. Emakumeok ezkutuan egoten jarraitzen dugu: lan feminizatua esparru guztietan gutxietza izaten da, bai politikan, ekonomian, instituzioen aldetik zein gizonen aldetik ere.

Krisiaren aurkako neurriek, sexuaren araberako lanaren banaketan eta finantza sistema espekulatzailan oinarritzen den gaur egungo eredu ekonomikoa indartu baino ez dute egiten, politika neoliberalen etengabeko inposaketaren bidez.

Neurri hauek gizon eta emakumeon artean existitzen diren desberdintasunak areagotzen dituzte. Automozioan eta eraikuntzan inbertsio publiko izugarriak egiten diren bitartean, azpiegitura sozialetan ez da inolako apusturik egiten; hala nola hezkuntzan, osasunean, zaintzan edota babes sozialean.

Azken finean neurri hauek ez dira bideratzen benetan diskriminazioa eta gizarte honetako sektore prekarizatuenean sufritzen duten ahultasuna gainditzeko. Ekonomia ez da pertsonen eskubide sozialak bermatzeko eta hauen beharrak asetzeko antolatzen.

Borroka feministak beraz borroka antineoliberalari loturik egon behar du derrigorrez, sistema honek emakumeon menpekotasuna bideratzen duelako eta pobrezia jasateko arriskuak eragin handiagoa duelako emakumeengan.

Ekonomia ortodoxo eta patriarkal honen eta merkatuaren fundamentalismoaren oinarrien aurka borrokatu behar dugu, ekonomia merkatuarekin alderatzen duen ekonomiaren ikuspegi androzentrikoarekin bukatu behar dugu. Pertsonen beharren asetzeak izan behar du politikoaren agendak markatuko dituen eta ez merkatuak eta ondasunak jaso eta pilatzeak.

Emakumeok geure lan baldintza eta bizi baldintzen gabezi eta gehiegikeriak salatu behar ditugu. Horrela banatzen eta ahultzen gaituen eta beldurraren, esplotazioaren eta individualismoaren biktima bihurtzen gaituen fragmentazio neoliberalari aurre eginez.

Gure helburua bizi baldintza hobetoagoak posible egingo diren eredu ekonomiko berri baten eraikuntza da, azkarragoak eta indartsuagoak egingo gaituen borroka bateratu baten bitartez baino lortuko ez duguna.

Bukatzeo beraz, emakume zein eragile feminista guztiei deia luzatzen diegu borroka hau bere egin dezaten!



*Prekaritateari aurre egingo*  
**Prekaritateari aurre egingo**



Este 8 de Marzo, se cumplen 100 años de su instauración y de luchas por los derechos de las mujeres. Con él, comienza nuevamente la Marcha Mundial de las Mujeres, con sus terceras acciones internacionales en todas las partes del mundo. Estuvimos en el 2000, en el 2005 y ahora, en el 2010, nos sumamos otra vez a sus reivindicaciones.

Queremos denunciar que la crisis del sistema “hetero” patriarcal ataca directamente las condiciones de vida de las mujeres, su salud, su autonomía y su dignidad.

En la fase actual del capitalismo la precariedad no se restringe al ámbito laboral, donde ocupamos los puestos más precarios, más inseguros y con menos salario, sino que se extiende a la totalidad de la existencia. Hablamos de precariedad en la vida, en el acceso a bienes de primera necesidad, en la vivienda, en la salud, en los cuidados, en los trabajos no remunerados, en el acceso a prestaciones públicas, en la vivencia del tiempo, en el disfrute del cuerpo, en la condición de ciudadanía...

El concepto de “trabajo” se limita a la actividad del mercado laboral. Es decir, al empleo, con consecuencias excluyentes: Las actividades realizadas fuera del mercado laboral, no se consideran trabajo ni se las reconoce valor socioeconómico. Las mujeres seguimos estando invisibilizadas: El trabajo feminizado es ignorado en todos los ámbitos, en la política, en la economía, por parte de las instituciones y de los hombres.

Las medidas actuales “anticrisis” se están dirigiendo a apuntalar el actual modelo económico basado en la división sexual del trabajo y su sistema financiero especulativo, a base de imponer políticas neoliberales.

Estas medidas agravan las desigualdades ya existentes entre hombres y mujeres, pues se enfatiza la inversión pública en sectores poco sostenibles, como el del automóvil y el de la construcción, y no en infraestructuras sociales como educación, salud, cuidados y protección social.

Es decir, no se dirigen a atajar la discriminación ni la vulnerabilidad que sufren los sectores más precarizados de nuestra sociedad y la economía no se organiza para garantizar los derechos sociales de las personas y satisfacer sus necesidades.

Es por ello que la lucha feminista no puede ser ajena a la lucha antineoliberal, porque este sistema está íntimamente relacionado con la subordinación de las mujeres y porque las situaciones de riesgo de pobreza inciden más intensamente en todas nosotras.

Tenemos que romper con los postulados de la economía ortodoxa y patriarcal dominante y del fundamentalismo de mercado, romper con esta visión androcentrica de la economía, que equipara lo económico con los mercados. Son los procesos de satisfacción de las necesidades de las personas, los que deberían marcar las agendas de los políticos y no estar subordinados a los mercados ni a la acumulación de beneficios.

Tenemos que denunciar las carencias y excesos de nuestra situación laboral y vital a fin de escapar de la fragmentación neoliberal que nos separa, debilita y convierte en víctimas del miedo, de la explotación y del individualismo.

Pero sobre todo queremos hacer posible la construcción de un modelo económico y social, de otras posibilidades de vida a través de una lucha conjunta que nos haga más sabias y más fuertes.

Por todo ello hacemos un llamamiento a todas las mujeres y organizaciones feministas para que hagan suya esta lucha.

ez, emakumeok martxan!!  
ez, emakumeok martxan!!



# EGITARRAUA / PROGRAMA:

## Martxoak 9

Pelikula proiektzioa Bilborocken, arratsaldeko 19:30 etan.

"Made in L.A" / Pelicula.

## Martxoak 10

- . Prekariatatearen aurkako ekimena "Saquemos sus trapos sucios", Plaza Eliptikan, goizeko 12:00etatik 12:30 etara / Accion contra la precariedad.
- . Mundu Martxako MURALAREN margoketa Arenalean 13:00etatik aurrera / Creacion del Mural de la Mundu Martxa.
- . Mundu Martxari harrera, 18:30 etan Udaletxean / Bienvenida a la Mundu Martxa.
- . Ekitaldia, Performancea, Bertsolariak, Antzerkia, Perkusioa SOKOLE taldea rekin, Mungiaiko Musika Eskola... Arenalean / Acto, Performance, Bersolaris, Teatro, Percusion con el grupo SOKOLE, Escuela de musica de Mungia...
- . Kalejira, Arenaletik 20:30 etan.

## Martxoak 11

Hitzaldia Prekariatatearen inguruan, 19:00etan La Bolsan, JAIONE HERRERO "Crisis economica, crisis medioambiental", IRATXE ARRIOLA de EHNE "Decrecimiento" / Charla.

## Martxoak 13

Autobusa Iruneara Mundu Martxaren bukaera ekitaldira, bazkaria, kontzertua... Apuntatzeko: Martxoak 11 rarte 94 415 54 83 telefonora deitu (goizez) / Autobus a Iruna.

**MARTXOAK 8 ko KORDINADORA FEMINISTA:**  
**B.E.A, Bilgune Feminista, Mugarik Gabe,**  
**Mundubat, Coordinadora de ONGs,**  
**Munduko Emakumeak, Paz con Dignidad,**  
**Euskadi Cuba, Grupo de Decrecimiento de Bizkaia,**  
**ESK, STEEILAS, LAB, ELA, E.B, CCOO.**







# prekarietateari aurre eginez emakumeok martwan



**M**artxoak

**8** 100  
urte



**MANIFESTAZIOA**  
**ARRIAGAN 19:30 ETAN**  
2010